

EHUko Arte Ederren fakultateko sei ikasle Montehermoso kulturunean erakusten ari dira beren proiektuak

Gaurtik hasita, EHUko Arte Ederren fakultatean ikasten duten sei artista gaztek beren proiektuak jendaurrean jarriko dituzte, Montehermoso kulturunean, OUT THE LOOP izeneko erakusketan, zeinak Montehermosok euskal unibertsitatearekin batera ikasleentzat egiten duen urteko deialdian hautatutako proiektuak biltzen baititu.

Deialdiaren bosgarren edizioa izan da, eta 23 proiektu aurkeztu ziren. Sei lan hauek hautatu ziren kulturuneko aretoetako batean erakusgai jartzeko: “Teresa”, Luz Estefaníarena; “Colador. Un manifiesto de dudas y orificios”, Estela Miguelena; “Bratstvo / Jedinstvo”, Eriz Morenena; “Dtrnmnt”, Javier Rodríguezena; “Verdin en las rodillas / Lirdinga belaunetan”, Uxue Ruiz de Arcauteren, eta “Hacerse el sueco”, Alvaro Talaverarena.

Sortzaile bakoitzak 600 euroko laguntza izan du proiektua gauzatzeko, eta Montehermosok bitartekoak eta laguntza teknikoa eskaini dizkie.

“Deialdi honen bidez bultzada eman nahi zaie arte plastikoen eta ikus-entzunezko arteen arloan unibertsitate ikasketak egiten ari direnei, etorkizunean jarduera profesionala garatzerik izan dezaten. Ikasle horiek irakaskuntza akademikoaren eta jarduera profesionalaren erdibidean daude, eta espazioa eta etorkizunean baliatu beharko dituzten tresnak eskaintzen dizkiegu. Orobat, haien lanak ikusarazten laguntzen diegu”, azaldu du Kulturako zinegotzi Estíbaliz Cantok.

Aurtengo edizioan bi berritasun izan dira. Batetik, komisario talde bat arduratu da artistei aholku emateaz eta hautatutako proiektuen aurkezpena gidatzeaz. Hiru pertsona arduratu dira lan horretaz: Iker Fidalgo (Araba), Irati Irulegi (Gipuzkoa) eta Laura Díez (Bizkaia): *“gure inguruan egiten ari den lanaren ikuspegi zabalagoa izatea ahalbidetu du horrek”*.

Bestetik, orain arte egindako bost edizioak laburtzen dituen argitalpen bat plazaratuko da, irailean.

Seis estudiantes de la facultad de Bellas Artes de la UPV-EHU exponen sus proyectos en el Centro Cultural Montehermoso

Seis jóvenes artistas que cursan sus estudios en la Facultad de bellas Artes de la UPV-EHU muestran desde hoy sus creaciones en el Centro Cultural Montehermoso, en la exposición OUT THE LOOP que reúne los proyectos seleccionados en la convocatoria anual para el alumnado que realiza Montehermoso junto con la universidad vasca.

Esta convocatoria ha cumplido la quinta edición, a la que se presentaron 23 proyectos. Los seis trabajos finalmente seleccionados que han pasado a ocupar una de las salas del centro cultural son: “Teresa” de Luz Estefanía, “Colador. Un manifiesto de dudas y orificios” de Estela Miguel, “Bratstvo / Jedinstvo” de Eriz Moreno, “Dtrnmnt” de Javier Rodríguez, “Verdin en las rodillas / Lirdinga belaunetan” de Uxue Ruiz de Arcaute y “Hacerse el sueco” de Alvaro Talavera.

Todos estos creadores han contado con una ayuda de 600 euros cada uno para la producción de sus proyectos, así como con los medios y apoyo técnico de Montehermoso.

“Con esta convocatoria queremos impulsar a quienes cursan estudios universitarios en el campo de las artes plásticas y visuales, con el fin de que puedan desarrollar en el futuro una actividad profesional. Son estudiantes que se mueven en un escenario a medio camino entre la enseñanza académica y la actividad profesional y a quienes dotamos del espacio y las herramientas con las que deberán trabajar en su futuro profesional. Asimismo, ayudamos a que se visibilicen sus trabajos”, ha explicado la concejala de Cultura Estíbaliz Canto.

Este año, hay dos novedades con respecto a pasadas ediciones. La primera es el comisariado colectivo encargado de asesorar a los y las artistas y de guiar la presentación de los proyectos seleccionados. Tres personas se han encargado de esta labor: Iker Fidalgo (Álava), Iratí Irulegi (Gipuzkoa) y Laura Díez (Bizkaia), *“lo que ha permitido tener una visión más amplia del trabajo que se está realizando en nuestro entorno”*.

La segunda novedad es la edición de una publicación que resumirá las cinco ediciones hasta el momento desarrolladas de esta convocatoria y que verá la luz en septiembre.